

Kiroldegia goizetan zabalik izango da abuztu osoan

Zerbitzu guztiak egongo dira zabalik; goizeko zazpietatik eguerdiko ordubiak arte.



“Goizeko zazpietarako hasten bahaiz, ez zaik goiza oso motza egin behar!”

Kiroldegira joateko ohitura dutenak iaz baino gustoraxeago egongo dira. Aurten ez dute, joan den abuztuan bezala, Buruntzaldeko beste kiroldegiren batera jo beharrik, ordubiak artekoarekin konforme izanez gero behintzat.

“POLITIKOEN ERABAKIA”

Hala izan dela esan digu kiroldegiko berriemaileak: Lehen “batzuek” abuztuan ixtea erabaki zuten “oso jende gutxi etortzen zelako”; orain, “beste batzuek” goizez behintzat zabaltzea pentsatu dute “zerbitzu publikoa ezin litekeelako hila-betean itxita eduki.” □

Manu Loinaz irabazle Txantxangorriko ‘ehiza ibilbidean’

Hamalau parte hartzaile aritu ziren goizean goizetik plateri tiroka.

ATZO, Santa Barbara aldean bazen tiro hotsa. Txantxangorri Elkarteko partaideak jo eta su aritu ziren kartutxo guztiak erre artean (apenas plater guztiak hautsi zituzten baina).

ZORTZI SARITU

Manu Loinazek bi desenpate eta gero hartu zuen menpean Xabier Olasagasti (25 plateretik 19na jo zituzten). Hirugarren Asier Goikoetxea geratu zen; Carlos Lopez, Josetxo Esnal, Emilio Crespo, Narciso Sestelo eta Iñaki Urdanpilletak ere izan zuten saria. □



Zortzi sarituak hamaiketako berritan.

■ TXIRRINDULARITZA

‘Zikuñagako Ama’ko zikloturistak Iparraldera joango dira gaur

Sokoako buelta egin eta abuztuan jai. Irailean ekingo diote berriz iganderoko martxari.



‘Zikuñagako Ama’ lanak egin eta des-kantsuan.

MARTXOTIK urria arteko egutegia osatu eta igandero-igandero joaten dira inguruko herriren batera: Beizama, Lesaka, Aizarna....Taldeka ibiltzen dira, bakoitza bere martxan. Gaur, goizeko 07:30etarako lehenengoak pedalei eragiten behar du.

15 IRTENALDIREKIN SARIA

Ordu jakinak dituzte doazen herrietara iristeko; antolatzaileen seilua jaso eta buelta.

Abuztuko etena eta gero, Amezketan, San Martzial, Altagarate... badute oporretako mitxelinak non botea! □

■ ARRAUNA

Nagusiak Hondarribian eta gaztetxoak Loiolan

Zilarrezko Ligako estropada 12:30etan hasiko da eta Loiolakoa, berriz, 18:00etan.

ARRAUN zaleak egun pasa egiteko moduan dira. Hernania-rrak jotzera joango dira noski; baina, gordetzeko ez daude gaizki, asteartean, Pasaiaiko Banderan onenen kontra aritu beharko dute-eta.

GAZTETXOEK AZKENA

Laugarren banderaren bila arituko dira Urumeako uretan. Kontrario gogor guztiak hantxe ondoan: Zarautz, Orio, Trintxerpe...; baina, baita haiek ere Hernani! □

IRUNE
Estetika
eta orain...
ZUTIKAKO SOLARIUMA
Kardaberaz, 51-behea -Tlf. 943 55 71 13 -20120 HERNANI

- DEPILAZIOAK
- BETILEAK
- MASAJEAK
- AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK
- MAKILAJEA
- MANIKURA
- PEDIKURA
- SOLARIUMA

SARETXO
JATETXEA

SARETXO
San Inazio egunean, erromeria trikitilariekin.
Menu berezia:
Marmitakoa, baserriko oilaskoa, postrea eta kafea.
2.500 pzta.
Marraka-Enea Basemia
Santa Barbara auzoa, 92 Tel.: 943 55.64.81-943 55.46.75
20120 HERNANI

Mediku azterketak gimnasia egin nahi duten jubilatuentzat

Osasun frogak egiteko Jubilatu Etxean eman behar da izena.



Gimnasia beharrezkoa da sasoiko egoteko, baina, horrelako patxada ere ez da txarra izango osasunarentzat!

GIMNASIA egin eta gorputzari sano eta bigun eutsi nahi dioten helduek behar bezala hasteko aukera dute orain. Aurretik mediku azterketa egin behar da, ordea.

LEHENBAILEHEN

Animatzen direnak ahalik eta azkarrena pasa Jubilatu Etxetik, zerrendak osatu beharra baitago azterketa taldean egiteko.

BI TALDE

Hasieran talde bakarra bazen ere, azken urteetan 25 bat laguneko bi talde osatu izan dira. Kiroldegian, astelehen, asteazken eta ostiraletan ordu beteko gimnasia aldia aukeran du gusto duenak. ☐

'N-1'ean eskatu zuten presoak Euskal Herriratzea

Irteera operazioa aprobetxatuz, errepidea "Euskal Presoak Euskal Herrira" zioten pankartaz josi zuten, atzo, Senideak elkarteak deitutako *giza katean*.

PRESOEN Aldeko Martxa Nazionalaren amaierako ekitaldia N-1 errepidean burutu zen atzo. 12:00etatik 13:00etara autoan pasa ziren milaka lagunek *hamaika* aldiz irakurri behar izan zuten Euskal presoak Euskal Herriratze-ko eskaria.

HERNANIKOAK ANDOAINEN

Herniarrak 11:15etan Atsegindegian elkartu, eta Andoain eta Billabona arteko tartean jarri ziren bi kilometroko bidean. ☐





Telemar
ITXASTELE S.L.
Telyco denda
Elkano 13, HERNANI
☎ 943 33 26 00

'Telefonica'ko banatzaile eskusiboa, Movistar, zentralitak, 'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra,...

Irekiera eskaintza:
'Pack Activa' 6.900 ptatik + motxila + 7.000 pta deietan



SANTA BARBARA
JATETXEA
San Inaziotara
gonbidatzen zaituztegu

Santa Barbara, 2
Tel. 943. 331 387
20120 HERNANI

HITZ BITAN



"(...) Haur jaioberri bat naiz sehaska dut ohia (...) Kontuz etxeko denak jeiki da heroia Ninia gose da-ta nun da biberoia!"

✓ BERTSO MUSIKATUAK

Iraulio Panttalone Band taldearen emanaldia atzo, **Milagrosa elizan**. *Kronikaren* erredakzioa itxi eta gerora ekin ziotenez ezin jakin gertatuaren berri. Aurreko emanaldien pare aritu baziren, "aze espektakulua!"

✓ MENDI IRTEERA

Bai Euskal Herriari plataformak bi asteke mendi ibilaldia antolatu du **Hendaia**tik **Orreagara**. Atzo goizean atera eta Bera, Sara eta Urdazubitik barrena Elizondora iritsiko dira lehenengo astean. Bigarrenean, Garazi, Urkulu mendia eta Orreaga. Bi asteak 10 mila pezeta; bakarra, erdia: loa, gosaria eta motxila garraioa. Hernanitik koadrilatxoa joana da.

✓ SANTA BARBARAKO JAIA BIHAR

Herrian kale jira eta mendian meza, herri kirolak, bertsolariak, bazkaria eta haur jolasak izango dira goizetik gauera. Herriko aizkolarien txapelketa egingo da aurten lehenengo aldiz.

✓ PELOTA

Iosu Oiagak atzo jokatu zuen **Besagain** enpresarekin lehen **partidu profesionala**. Oraindik sinatu ez badu ere, kontratua bi urtekoa du. Orain, jaialdietan jokatuko du eta negu aldera hasiko dira txapelketak. Atzoko partiduko emaitzak bihar. ☐

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622
- 943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: **Sagastiberri**
Urbietan, 7
☎ 943552941
- ▶ Gauez: **Iturralde**
Usurbil, Poligono hamairu, 9,
☎ 943363395



SANTA BARBARA
PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

AUKERAKO AUTOAK	
Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Ford Escort Familiarra Turbo Diesela	SS-AV
Ford Mondeo Turbo Diesela- Haize egokitua	SS-AV
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 306 Turbo Diesela-Llantak-H.egokitua	SS-BB
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Suzuki '4 X 4'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...